

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Gasteizko Zuhatzuko 53. sektoreko udal jabetzako A-3 lurzatiaren kuota banaezina lehiaketa bidez besterentzeko dosierra abiaraztea, baldintza-agiria onestea eta lehiaketa deitzea

Ondasunen eta eskubideen inbentario orokorrean I-3892 gisa alta emanda dagoen funtsaren ehuneko 41,41eko kuota-zati baten titularrak da Udala. Funts hori ondare-ondasun gisa dago jasota, udalaren lurzoru ondarearen kategorian, eta 3 zenbakiko Jabetza Erregistroan bizitegi-lurzati gisa inskribatuta dago, 884 metro koadroko azalerarekin eta 200 metro koadroko erai-kigarritasunarekin. Muga hauek ditu: iparraldean, VL-1 izeneko bidea; hegoaldean, sektorearen muga; ekialdean, A4 emaitzako lurzati; mendebaldean, A2 emaitzako lurzati. Katastro-erreferentzia: 59100475000010001.

Lursail hori besterentzeko baldintza-agiria onestea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko irailaren 27an. Oinarrizko prezioa, lizitatzailak gora eginez hobetu ahalko duten lizitazio-tasa, hirurogeita hamabi mila, hirurogeita bederatziko euro eta laurogeita hamasei zentimo da (72.069,96 euro). Kopuru horretan ez daude sartuta zergak.

Indibiso baten kuota-zati baten besterentzea denez, Kode Zibilaren 1521. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako legezko atzera-eskuratzearen mende dago.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25), alde zuzeneko hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria <https://v-g.eus/53-A3zuazo> helbidean kontsultatu ahalko da.

Vitoria-Gasteizko Udalaren erregistro nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behean; 01008 Vitoria-Gasteiz — aurkeztu beharko dira proposamenak, 08:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, edo postaz, urriaren 12ko 1098/2001 LEDaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera; 2024ko azaroaren 29a izango da azken eguna.

Postaz igorri gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lizitatzailak, eta bidalketaren egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz (ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org).

Bi eskakizun horiek bete ezean, iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen bada proposamena deialdia egin duen organoak, ez da hura onartuko. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direlarik proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezteko epea bukatzen delarik, balorazio-batzordea eratuko da, zeinak gaitasun-beteki-zunak betetzen diren egiaztatuko baitu, eta lizitatzailen proposamenak jasotzen dituzten gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoaren eguna eta ordua zehaztuko (<https://v-g.eus/53-A3zuazo> helbidean argitaratuko da).

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, horren akta jasoko du, eta esleipen-proposamena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hark onets dezan.

Esleipendunak hiru mila, seiehun eta hiru euroko bermea (3.603,00 euro) jarri beharko du 10 egun balioduneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatuta.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 1ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria

JON ARMENTIA FRUCTUOSO